

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU-DEKRETUA, zeinaren bidez onartzen baitira dirulaguntza foralen deialdia eta oinarri arautzaileak, sustatzeko 150.000 biztanle baino gutxiagoko Bizkaiko udalek eta udal horiek parte hartzen duten elkarteek Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte hartzea 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Europari buruzko orientazioa bideratzeko Zerbitzuaren bitartez, helburu hau bete nahi du, besteak beste: Europari buruzko informazioa ahalik eta gehien jaso eta zabaltzea lortuko duten ekintzak zuzendu, koordinatu eta sustatzea, bai eta Bizkaiko udalerrien arteko elkarreragina Europako deialdiei begira zuzendu, koordinatu eta sustatzea ere.

Haren eginkizunen artean, hauek daude: Bizkaiko udalerriei Europar Batasunaren barruan dauden finantzaketa-deialdi eta aukeren inguruko orientazioa eta laguntza emateko zerbitzu bat martxan jartzeko lanak zuzentzea (Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 28ko 84/2022 Foru Dekretuaren 18.2.g artikulua) eta Europako jarduketetan parte hartzeko

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a promover la participación de los ayuntamientos y agrupaciones en las que participen ayuntamientos de Bizkaia de menos de 150.000 habitantes en programas e iniciativas de la Unión Europea en el periodo 1 de noviembre 2025 y el 31 de octubre de 2026.

La Diputación Foral de Bizkaia, a través del Servicio de Orientación Europea tiene entre sus objetivos la dirección, coordinación y fomento de las acciones que permitan lograr la máxima obtención y óptima difusión de la información europea, así como de la interacción con los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia de cara a posibles convocatorias europeas.

Entre sus funciones está la de dirigir la puesta en marcha de un servicio de orientación y apoyo a los municipios en materia de convocatorias y oportunidades de financiación en el marco de la UE (artículo 18.2.g del Decreto Foral 84/2022, de 28 de junio de la Diputación Foral de Bizkaia), así como detectar y proponer para su diseño nuevas





aukera berriak detektatzea eta haien diseinua proposatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriek dituzten beharrianak aintzat izanda (aipatutako dekretuaren 18.2.d artikulua).

Hortik sortu da Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko Bulegoa, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Bizkaiko udalei Europar Batasunaren finantzaketaren aukerei buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzeko tokiko proiektuetarako Europako finantzaketa eskatzen dutenean.

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek Europako finantzaketari buruzko programa eta tresnetan parte hartzea funtsezkoa da lurraldean proiektu estrategikoak garatu ahal izateko, eta, horrez gainera, aukera ematen du Europako puntako beste kide batzuekin lan egiteko eta Bizkaian egiten den lana eta lortzen diren emaitzak nazioartean ikusarazteko.

BFA jakitun da zer zaila den honelako finantzaketan parte hartzea, batez ere udalentsat, baliabide tekniko eta ekonomiko eta giza baliabide gutxi baitituzte. Hori horrela, foru-dekretu honen bidez laguntza-lerro berezi bat ezartzen da Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek eta udal horiek parte hartzen duten elkarteek 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte har dezaten; helburua da parte hartze horren kostuen osorik edo zati batean finantzatzea.

oportunidades de participación en actuaciones europeas pensando en las necesidades de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia (artículo 18.2.d del citado Decreto).

De ahí nace la Oficina de Orientación Europea cuyo cometido es ofrecer información sobre las oportunidades de financiación comunitaria y asesoramiento tanto a la propia Diputación Foral de Bizkaia como a los ayuntamientos vizkainos para solicitar financiación europea para proyectos locales.

La participación de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia en programas e instrumentos de financiación europea es clave para poder desarrollar proyectos estratégicos para el citado territorio, y abre una oportunidad para trabajar con otros socios europeos punteros, así como para dar visibilidad internacional a los resultados y al trabajo que se lleva a cabo en Bizkaia.

La DFB es consciente de las dificultades que supone la participación en este tipo de financiación europea para los municipios debido a la escasez de recursos técnicos, económicos y humanos. En este sentido y mediante este Decreto Foral se plantea una línea específica de ayudas destinada a los ayuntamientos, y agrupaciones en las que participen ayuntamientos de Bizkaia de menos de 150.000 habitantes con el fin de promover su participación en programas e iniciativas de la Unión Europea entre el 1 de noviembre de 2025 y el 31 de octubre de 2026, financiando total o parcialmente los costes inherentes a la misma.





Foru Dekretu honek Bizkaiko Lurralde Historikoko balizko onuradun gisa hartzen ditu udal-erakunde autonomoak, mankomunitateak, behargintzak, landa garapeneko elkarteak, udal-enpresa publikoak eta eskualdeko turismo-kudeaketa erakundeak, udalek beren proiektu estrategikoak bultzatzeko dituzten lan egiteko eta elkartzeko errealitate eta moduei erantzuteko helburuarekin, proiektu horiek, askotan, udal-eremua gainditzen baitute.

Programa eta ekimen horiek gauzatzeko, deialdi batzuk egingo dira, Bruselan, estatuan edo eskualdean kudeatuko direnak. Haietan parte hartzeko hau da beharrezkoa: parte hartzeko erabaki irmoa izatea eta deialdian aurkeztuko den proiektua ondo idazteko eta parte hartzeko baldintzak garaiz eta forma egokian prestatzeko euskarri tekniko ona izatea. Horrek guztiak kostu erantsi batzuk ekarri ohi ditu, eta dekretu honen helburua da haien zati bat finantzatzea.

Dirulaguntzak emateko prozedurari dagokionez, maiatzaren 31ko 5/2005 Arauaren 20. artikuluan aurreikusitako lehia askeko prozeduraren bidez emango dira. Prozedura horrek laguntzak modu eraginkorrean esleitzeko aukera ematen du, eskaerak jaso ahala emanez.

Jardueren izaera dela eta, eskatzailea urtean zehar Europako finantzaketa-deialdi ugarietako batera aurkeztzen denean sortzen da laguntzaren beharra.

Este Decreto Foral incluye como posibles beneficiarios del Territorio Histórico de Bizkaia a los organismos autónomos municipales, las mancomunidades, los Behargintzak, las asociaciones de desarrollo rural, las empresas públicas municipales y los entes de gestión turística, con el objetivo de responder a las distintas realidades y formas de trabajar y de agruparse que tienen los ayuntamientos de cara a impulsar sus proyectos estratégicos, los cuales superan en muchas ocasiones el ámbito municipal.

Los programas e iniciativas se articulan a través de diferentes convocatorias que pueden ser gestionadas desde Bruselas, a nivel estatal o regional. Participar en ellos requiere al mismo tiempo de una determinación firme de participar, un buen soporte técnico para la buena redacción del proyecto de cara a la convocatoria, así como para la preparación de los requisitos de participación en tiempo y forma. Todo ello suele generar unos costes añadidos, siendo el objeto del presente Decreto la financiación de una parte de los mismos.

En cuanto al procedimiento de concesión de las subvenciones se otorgarán por el procedimiento de libre concurrencia previsto en el artículo 20 de la Norma 5/2005 de 31 de mayo. Dicho procedimiento posibilita la asignación de las ayudas de forma eficaz, mediante la concesión según se reciben las peticiones.

Debido a la naturaleza de las actuaciones, la necesidad de la ayuda surge en el momento en el que el solicitante se presenta a una de las múltiples





Hori dela eta, ezinezkoa da eskabideak konparatzea eta, ondorioz, norgehiagoka egitea. Horrela, laguntzak modu eraginkorrean esleitzea ahalbidetu nahi da.

Horrez gainera, genero-ikuspegia txertatu da dekretu hau egitean, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen Bategina onartzen duena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduan eta 2024ko azaroaren 14ko 112/2024 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzeko eta Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VI Foru Plana.

Ildo horretan, tramitazioan, 87/2021 Foru Dekretu horren 11. artikuluan aipatzen den txostena sartu da, hau da, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioaren txostena.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira).

87/2021 Foru Dekretuaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, prozedura hau salbuetsita dago aurretiko

convocatorias de financiación europea a lo largo del año. Dicha circunstancia imposibilita la comparación de solicitudes y, en consecuencia, la concurrencia competitiva, pretendiendo así posibilitar la asignación de ayudas de forma eficaz.

Asimismo, incorpora la perspectiva de género en su elaboración, en cumplimiento del Decreto Legislativo 1/2023 de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, de la Norma Foral 4/2018 de 20 de junio para la igualdad de Mujeres y Hombres, del Decreto Foral 112/2024, de 14 de noviembre y del VI Plan Foral para la Igualdad de hombres y mujeres 2021-2024.

En este sentido, se incorpora en su tramitación el Informe de Evaluación previa de impacto en función del Género al que hace referencia el artículo 11 del Decreto Foral 87/2021.

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 26 del Decreto Foral 87/2021, este proyecto está exento de los trámites





kontsulta publikoaren eta jendaurreko informazioaren entzunaldiaren izapideetatik, xedapen arauemaile bat delako, *“diru-laguntza, beka eta bestelako laguntza ekonomikoen programen oinarriak eta deialdiak onartzen dituen, baldin eta haien edukia berdina bada edo ez bada funtsean aldatzen Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Prozedura Erkidearen aurreko ekitaldietan xede berarekin onartutako oinarrien eta deialdien edukia”*.

Dekretu honen bidez diruz lagundutako jarduerak ez dira estatuaren laguntzak; izan ere, erakunde onuradunek ez dute merkatu jakin batean ondasunak eta zerbitzuak eskaintzean datzan edozein jarduera ekonomiko gisa definitzen den jarduera egiten, baizik eta udal-politikak garatzen eta bultzatzen dituzte, bai banaka, bai udal-partaidetzako beste erakunde batzuen bidez, eta haien helburua publikoa da, guztiek interes komuneko jarduerak garatzen baitituzte beren eskumenen esparruan. Gainera, tokiko zerbitzuak direnez, esan daiteke ez dietela eragiten estatu kideen arteko merkataritza-trukeei.

Ondorioz, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, honako hau

de consulta pública previa y audiencia de información pública al tratarse de una disposición normativa que aprueba *“las bases y convocatorias de programas de subvenciones, becas y otras ayudas económicas cuyo contenido sea idéntico o no se modifique substancialmente el contenido de las bases y convocatorias que hubieran sido aprobadas con el mismo objeto en ejercicios anteriores a la entrada en vigor de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas”*.

Las actividades subvencionadas mediante el presente Decreto no constituyen ayudas de estado, ya que las entidades beneficiarias no ejercen una actividad económica definida como cualquier actividad consistente en ofrecer bienes y servicios en un determinado mercado, sino que su actividad se centra en el desarrollo e impulso de las políticas municipales bien individualmente o colectivamente a través de otras entidades de participación municipal, siendo su objetivo de carácter público bajo el desarrollo de actividades de interés común a todos ellos dentro del ámbito de sus competencias. Además, tratándose de servicios locales, puede considerarse que no afectan a los intercambios comerciales entre los estados miembros.

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas, y previa deliberación del Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia





XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. – Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.

Foru dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdi publikoa onartzen dira Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek eta udal horiek parte hartzen duten elkarteek 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte har dezaten sustatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako lehenengoa. Arau bidez garatzeko gaikuntza.

Ogasun eta Finantzetako foru diputatua ahalmena ematen zaio foru-dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru-Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

DISPONGO:

Artículo Único. Aprobación de las bases reguladoras y la convocatoria.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria pública de subvenciones forales destinadas a promover la participación de los ayuntamientos y agrupaciones en las que participen ayuntamientos de Bizkaia de menos de 150.000 habitantes en programas e iniciativas de la Unión Europea entre el 1 de noviembre de 2025 y el 31 de octubre de 2026.

DISPOSICIONES FINALES

Disposición Final primera. Habilitación para desarrollo normativo

Se faculta a la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo de lo dispuesto en el presente Decreto.

Disposición Final Segunda. Entrada en vigor

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOB.





Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte hartzea dirulaguntza foralen deialdia eta oinarri arautzaileak.

Bases reguladoras y convocatoria de subvenciones forales destinadas a promover la participación en programas e iniciativas de la UE

1.Oinarria.- Xedea

1.-Dirulaguntzen deialdia Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek eta udal horiek parte hartzen duten elkarteek Europar Batasunaren programa eta ekimenetan parte har dezaten sustatzeko.

Base 1.- Objeto

1.- Convocar subvenciones forales destinadas a promover la participación de los ayuntamientos y agrupaciones en las que participan ayuntamientos de Bizkaia de menos de 150.000 habitantes en programas e iniciativas de la Unión Europea.

2.- Dirulaguntzen xede izango dira Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalei edo udal horiek parte hartzen duten elkarteek laguntza tekniko eta kanpoko aholkularitza ematea, baldin eta laguntza eta aholkularitza horien helburua bada 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean Europar Batasuneko programa eta ekimenetan proiektuak aurkeztea.

2.- Serán objeto de subvención las labores de asistencia técnica y asesoría externa a los ayuntamientos y agrupaciones en las que participen ayuntamientos de menos de 150.000 habitantes, que tengan por finalidad la presentación de proyectos en programas e iniciativas europeas de la Unión Europea durante el periodo que va desde el 1 de noviembre de 2025 y el 31 de octubre de 2026.

3.- Foru-dekretu honen bidez, erakunde onuradunak Europako finantzaketa-deialdi batean proiektu bat aurkeztean izan dituen laguntza teknikoko eta aholkularitzako kanpoko kostuen portzentaje bat finantzatuko da.

3.- La finalidad del presente decreto foral será la de financiar un porcentaje de los costes externos de asistencia técnica y consultoría en los que haya incurrido la entidad beneficiaria a la hora de presentar un proyecto en una convocatoria de financiación europea.

2.. Oinarria - Erakunde Onuradunak

Honako hauek izan daitezke erakunde onuradun:

- a) Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalak.
- b) Haien udal-erakunde autonomoak eta udal-enpresa publikoak.

Base 2 – Entidades beneficiarias

Podrán ser entidades beneficiarias las siguientes:

- a) Los ayuntamientos de Bizkaia de menos de 150.000 habitantes.
- b) Sus organismos autónomos municipales y empresas públicas municipales.





c) Bizkaiko 150.000 biztanletik beherako udalek parte hartzen duten hurrengo elkarteak:

- Bizkaiko mankomunitateak.
- Bizkaiko “Behargintzak” Enplegurako Laguntzarako Zentroak.
- Bizkaiko Federazioa eta Landa Garapeneko Elkarteak.
- Bilbo-Bizkaia 2030 Turismo Estrategian aintzatetsitako Bizkaiko eskualdeko turismo-kudeaketako erakundeak: Gorbeialde, Jata Ondo, Urkiola, Urremendi, Enkartur eta Lea Artibai Fundazioa.

3.Oinarria.- Dirulaguntza kopurua

Ahalik eta dirulaguntzarik gehien emango da, aurrekontuko diru-izendapena eta ematen diren dirulaguntzen zenbatekoa kontuan harturik.

4.Oinarria. - Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1.- Gastuak diruz laguntzeko gastutzat joko dira, baldin eta zalantzarik gabe erantzuten badiote diruz laguntzen den jardueraren izaerari, guztiz beharrezkoak badira.

2.- Dirulaguntza jasotzeko, kanpoko aholkularitzako entitateek emandako fakturetan jasoko dira Europako programa eta ekimenetarako tokiko proiektuak aurkezteko laguntza teknikoaren eta aholkularitzaren ondoriozko gastuak.

c) Las siguientes agrupaciones en las que participen ayuntamientos de Bizkaia de menos de 150.000 habitantes:

- Las Mancomunidades de Bizkaia.
- Centros de Apoyo al Empleo “Behargintzak” de Bizkaia.
- Federación y Asociaciones de Desarrollo Rural de Bizkaia.
- Entes de Gestión Turística de ámbito comarcal de Bizkaia, reconocidas en la Estrategia de Turismo Bilbao-Bizkaia 2030, que son: Gorbeialde, Jata Ondo, Urkiola, Urremendi, Enkartur y Lea Artibai Fundazioa.

Base 3.- Número de subvenciones

El número de subvenciones será el máximo posible de acuerdo con la consignación presupuestaria y el importe de las ayudas otorgadas finalmente.

Base 4.- Gastos subvencionables

1.- Se considerarán gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios.

2.- Se considerarán gastos subvencionables aquellos que figuren en las facturas emitidas por entidades de consultoría externa con motivo de las labores de asistencia técnica y consultoría que tengan por finalidad la presentación de proyectos locales a programas e iniciativas europeas.





3.- Halaber, honako gastu hauek onartuko dira:

- Bideragarritasun- eta merkatu-azterlanak.
- Proiektuaren garapenerako beharrezkoak diren txosten eta azterlan espezifikoak.
- Proiektua Europako ekimenarekin, proposatutako europaren partzuergoarekin eta deialdi zehatz batean egokitzen den ebaluatze txostenak.
- Partzuergoaren jardueren koordinazioa.
- Proiektuaren idazketa
- Proiektua eskatzen diren bitartekoen bidez aurkeztea.

5. Oinarria. - Bekak eta laguntzak emateko araubidea.

1.- Dirulaguntzak norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidez emango dira, hau da, dirulaguntzak eskabideak erregistratzen diren hurrenkeran emango zaizkie eskubidea duten eskatzaile guztiei, dagoen aurrekontua agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitu arte (2026ko urriaren 31ean).

2.- Dekretu honen helburua izanik udalek edo udalen elkarteek Europar Batasunean tokiko proiektuak egiteko finantzaketa osagarria lortzeko dauden programa eta ekimen ugaritan parte har dezaten sustatzea, norgehiagokarik gabeko prozedura aukeratu da haien parte-hartzea arindu eta sustatzeko, eta epe zabala eta nahikoa zuzkidura ezarri dira eskabideak aurkezteko.

3.- Además, se admitirán los siguientes gastos:

- Estudios de viabilidad y de mercado.
- Informes y estudios técnicos específicos necesarios para el desarrollo del proyecto.
- Informes de valoración sobre la adecuación del proyecto a la iniciativa europea, el consorcio europeo propuesto y su encaje final en una convocatoria concreta.
- Coordinación de actividades del consorcio.
- La redacción del proyecto.
- La presentación del proyecto por los medios que se requieran.

Base 5.- Régimen de concesión.

1.- La concesión de las citadas subvenciones se realizará mediante el sistema de libre concurrencia, esto es, otorgándose por orden de registro de solicitud a todos aquellos solicitantes que tengan derecho, hasta agotar el presupuesto disponible o llegar a la fecha de vigencia de la convocatoria, establecida en el 31 de octubre de 2026.

2.- Siendo el objeto del presente Decreto la promoción de la participación de los ayuntamientos o agrupaciones de los mismos en los numerosos programas e iniciativas que existen en la Unión Europea para obtener financiación adicional para llevar a cabo proyectos locales se ha elegido el procedimiento de la libre concurrencia para agilizar e impulsar su participación, estableciendo un plazo amplio y una dotación suficiente para la presentación de solicitudes.





3.- Dirulaguntza emateko, espedientearen egiaztatuta geratu beharko da erakunde eskatzaileak onuradun izateko betekizunak betetzen dituela, baita egindako jarduera dirulaguntza jaso dezaketenen artean dagoela ere. Aurreko hori egiaztatu ondoren, dirulaguntzak emango dira, eskura dauden aurrekontuko diru-baliabideen arabera eta ondoren aipatuko diren mugen barruan.

6. Oinarria. - Laguntza-modalitatea eta zenbatekoa

1.- Europako funtsek finantzatzeko deialdi batean proiektu bat aurkezteko onuradunak kontratatu behar izan duen laguntza teknikoko eta aholkularitzako kanpoko kostuen portzentaje bat izango da finantzaketa. Baremazioa honako hau da:

2. oinarriko a) idatz-zatiaren erakunde onuraduna:

- 1.200 biztanle baino gutxiago baditu, kanpoko kostuen % 100 finantzatzeko da.
- 1.200 biztanle baino gehiago eta 7.500 baino gutxiago baditu, kanpoko kostuen % 75 finantzatzeko da.
- Gainerako erakunde onuradunentzat, kanpoko kostuen % 50 finantzatzeko da.

2. oinarriko b) idatz-zatiaren erakunde onuraduna:

Zein udaletxeren menpe dauden:

- 1.200 biztanle baino gutxiago baditu, kanpoko kostuen % 100 finantzatzeko da.
- 1.200 biztanle baino gehiago eta 7.500 baino gutxiago baditu, kanpoko kostuen % 75 finantzatzeko da.

3.- Para que proceda al otorgamiento de la subvención, deberá quedar acreditado en el expediente que la entidad solicitante cumple los requisitos para ser beneficiaria, así como que la actividad realizada tiene la consideración de actividad subvencionable. Verificado lo anterior, se procederá al otorgamiento de la subvención en la medida que lo permitan las disponibilidades presupuestarias y dentro de los límites que se señalan a continuación.

Base 6.- Modalidad y cuantía de la ayuda

1.- Se financiará un porcentaje sobre el coste de la asistencia técnica y asesoría externa que la entidad beneficiaria haya tenido que contratar para la presentación de un proyecto en una convocatoria financiada por fondos europeos. La baremación es la siguiente:

Entidad beneficiaria de la Base 2, letra a):

- Si tiene menos de 1.200 habitantes, se financiará el 100% de los costes externos.
- Si tiene más de 1.200 y menos de 7.500 habitantes, se financiará el 75% de los costes externos.
- Para el resto de entidades beneficiarias, se financiará el 50% de los costes externos.

Entidad beneficiaria de la Base 2, letra b):

Si el ayuntamiento del que dependen:

- tiene menos de 1.200 habitantes, se financiará el 100% de los costes externos.
- tiene más de 1.200 y menos de 7.500 habitantes, se financiará el 75% de los costes externos.





- Gainerako erakunde onuradunentzat, kanpoko kostuen % 50 finantzatuko da.

2. oinarriko c) idatz-zatiaren erakunde onuraduna:

- Erakunde onuraduna osatzen duten udalen biztanleriaren batura 1.200 biztanletik beherakoa bada, kanpoko kostuen % 100 finantzatuko da.

- Zenbateko hori 1.200 biztanletik gorakoa eta 7.500 biztanletik beherakoa bada, kanpoko kostuen % 75 finantzatuko da.

- Gainerako kasuetarako, kanpoko kostuen % 50 finantzatuko da.

- Para el resto de entidades beneficiarias, se financiará el 50% de los costes externos.

Entidad beneficiaria de la Base 2, letra c):

- Si la suma de la población de los ayuntamientos que componen la entidad beneficiaria resulta ser menor de 1.200 habitantes, se financiará el 100% de los costes externos.

- Si dicha suma resulta ser mayor de 1.200 y menor de 7.500 habitantes, se financiará el 75% de los costes externos.

- Para el resto de supuestos, se financiará el 50% de los costes externos habidos.

2.- Erakunde onuradunek finantzatu beharko dute jarduketa, eta jarduketa amaituta jasoko dute finantzaketa; laguntza jasotzeko, ezinbesteko baldintza izango da proiektua Europako funtsek finantzatutako deialdi batean aurkeztea.

2.- Las entidades beneficiarias deberán financiar la actuación y percibirán la financiación una vez la actuación esté concluida, siendo un requisito indispensable para recibir la ayuda que el proyecto haya sido presentado en una convocatoria financiada por fondos europeos.

3.- Laguntza gehiegi ez jasotzeko, 10.000 euroko muga ezarri da entitate onuraduna bakoitzeko.

3.- Con el fin de evitar una excesiva concentración de las ayudas, se ha fijado un límite de 10.000 euros por entidad beneficiaria.

7. Oinarria. - Eskabideak aurkezteko forma eta epeak

1.- APELen 14.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, dirulaguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira:
<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>.

Base 7.- Plazos y forma de presentación de las solicitudes

1.- De conformidad con lo dispuesto en el artículo 14.2 LPACAP, las solicitudes de subvención deberán presentarse a través de la sede Electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia
<https://www.ebizkaia.eus/es/inicio>





2.- Eskabideak aurkezteko epea hau izango da: 2026ko urtarrilaren 8ko 8:30etatik 2026ko urriaren 31ko 13:30ak arte. Nolanahi ere, ez da dirulaguntza gehiago emango aurrekontua agortzen den momentutik aurrera, edo, beranduena, 2026ko abenduaren 31n.

8. Oinarria.- Aurkeztu behar den dokumentazioa

1.- Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Erakunde eskatzailearen gobernu-organoaren edo ordezkaritza eskudunaren ebazpenaren edo erabakiaren egiaztagiria, non berariaz onartzen baita kasuan kasuko Europako finantzaketa-deialdian deialdian parte hartzea eta jasotzen baitira proiektuaren izena eta aurrekontua, barnean harturik proiekturako aurreikusten den finantza-plana.

b) Toki proiektua 2025eko azaroaren 1etik 2026ko urriaren 31ra bitartean Europako finantzaketa-deialdi batera aurkeztu dela egiaztatzen duen agiria.

c) Hala badagokio, erakunde onuradunak eskaturiko hornitzaile ezberdinen 3 eskaintza Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautu zuen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauen

2.- El plazo para la presentación de solicitudes será desde las 8:30 horas del día 8 de enero de 2026 hasta las 13:30 horas del 31 de octubre 2026. En todo caso, la concesión de subvenciones finalizará en el momento de producirse el agotamiento del presupuesto destinado a este efecto o a más tardar el 31 de diciembre de 2026.

Base 8.- Documentación a presentar

1.- Se deberá presentar la siguiente documentación:

a) Certificado acreditativo de la resolución o acuerdo del órgano de gobierno o de representación competente de la entidad solicitante en el que, de forma expresa, se apruebe la participación en la convocatoria de financiación europea elegida, así como el nombre y presupuesto del proyecto, incluyendo el plan financiero previsto para el mismo.

b) Documento justificativo de que el proyecto local ha sido presentado a una convocatoria de financiación europea, en el periodo comprendido entre el 1 de noviembre de 2025 y el 31 de octubre de 2026.

c) Aportación, en su caso, de 3 ofertas de diferentes proveedores solicitadas por la entidad beneficiaria, en cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 29.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las





29.3. artikuluan xedaturikoa betetzeko (aurrerantzean, 5/2005 Foru Araua).

d) Kanpo-aholkularitzako entitateen faktura edo fakturak, proiektu lokalak Europako programa eta ekimenetan aurkeztea xede duten laguntza tekniko eta aholkularitza dela-eta emanak, non xehaturik agertu behar baitute gastuek zein bere zenbatekoarekin. Bakarrik onartuko dira dekretu honetako dirulaguntza eskatzen duen erakundearen izenean dauden fakturak, eta ez dira onartuko beste erakunde batzuek zuzenean ordaintzekoak direnak.

e) Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak faktura benetan ordaindu duela egiaztatzen duen agiria.

subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante, NF 5/2005).

d) Factura o facturas emitidas por entidades de consultoría externa con motivo de las labores de asistencia técnica y consultoría que tengan por finalidad la presentación de proyectos locales a programas e iniciativas europeas, en la que deberán constar un desglose de los gastos con sus importes correspondientes. Sólo se aceptarán aquellas facturas emitidas a nombre de la entidad solicitante de la subvención del presente Decreto, no siendo aceptados los que vayan a ser abonados directamente por otras entidades.

e) Documento justificativo de que la factura ha sido efectivamente pagada por la entidad solicitante de esta subvención.

2.Dauden datu-bitartekaritzarako sistemen bidez, Bizkaiko Elkarrengarritasun Nodoa erabilita, Europari buruzko Orientazio Bideratzeko Zerbitzuak egiaztatu eta kontsultatu egingo ditu administrazio publikoek erakunde parte-hartzaileei buruz dituzten datuak, dekretu honen izapidetze administratiborako beharrezkoak direnean, interesdunak modu espresuan kontra dagoela adierazten ez badu. Kontra egonez gero, arrazoiak adierazteaz gainera, behar diren datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko dira. Datu horiek honako hauek dira:

2. El Servicio de Orientación europea, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, a través del Nodo de interoperabilidad de Bizkaia, realizará las comprobaciones y consultas pertinentes de los datos de las entidades participantes necesarias para la tramitación administrativa del presente decreto que obren en poder de las Administraciones Públicas, salvo oposición expresa de las mismas, en cuyo caso, además de indicar los motivos de su oposición, deberán aportarse los datos o documentos correspondientes. Los referidos datos son:





a) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunera jotzea, Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Datu pertsonalak eskuratzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan aurreikusitakoa beteko da; erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa da; halaber, erregelamendu hori garatzeko araudia eta datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa beteko da.

3. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako dokumenturen bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio erakunde interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

a) Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias.

b) Certificado de estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social.

En todo caso, si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible, el Servicio de Orientación Europea podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación. Cualquier acceso a los datos personales se realizará de conformidad con lo previsto al respecto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y su normativa de desarrollo, así como en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y Garantía de los Derechos Digitales.

3. Si las solicitudes no se formalizaran completamente o faltara alguno de los documentos exigidos por el presente Decreto Foral, se requerirá a la interesada, para que en el plazo de diez (10) días hábiles subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se la tendrá por desistida de su petición, archivándose la misma, previa la correspondiente resolución.





9. Oinarria. - Gastuen justifikazioa

1.-Justifikazioko kontuaren modalitatea erabili da (frogagiriekin), Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 57. artikuluan arautua.

10. Oinarria. – Ebazpena

1.- Eskabideei buruzko ebazpenak emateko eta jakinarazteko epea BI (2) HILABETE izango da gehienez, eskabideen aurkezpena erregistratzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

2.- Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak emango ditu ebazpenak, Europari buruzko Orientazioa Bideratzeko Zerbitzuak proposamena eginda. Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

3.- Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskura jarritz jakinaraziko da eskatutako dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena edo erabakia, eta administrazio-bidea agortuko du.

4. Foru-dekretu honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza,

Base 9.- Justificación de gastos

1.-Se ha utilizado la modalidad de la Cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, regulada en el artículo 57 del Reglamento Foral de Subvenciones (D.F. 34/2010, de 23 de marzo).

Base 10.- Resolución

1.- El plazo máximo para resolver y notificar las resoluciones de las solicitudes será de dos (2) MESES, a contar desde la fecha de registro de entrega de solicitudes.

2.- Las resoluciones serán dictadas por la Diputada Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, previo informe del Servicio de Orientación Europea. Si transcurrido dicho plazo no mediara resolución expresa y notificación de ésta, se entenderá que ha sido desestimada, sin perjuicio de que con posterioridad sea resuelta de forma expresa.

3.- La resolución o acuerdo por el que se proceda a la concesión o denegación de la subvención solicitada, que agota la vía administrativa, se notificará mediante la puesta a disposición en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia.

4. Las subvenciones del presente Decreto Foral serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos, o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquier Administración o ente público o privado, estatal, de la Unión Europea o de





diru-sarrera edo baliabideekin. Horren salbuespena izango dira Bizkaiko Foru Aldundiko beste edozein foru sailek emandako dirulaguntzak.

5. Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzaren baten aldaketak, eta dena dela, aldi berean estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk lortzeak, dirulaguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea ekar dezakete, foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzei doakien zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza edo laguntzaren batekin batera, inola ere ez baita izango erakunde onuradunak garatuko duen jardueraren kostua baino handiagoa.

6. Ogasun eta Finantzako Sailak, urtero, iragarki bat jarriko du Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, deialdi publiko honetan aurkeztu eta ebatzi diren eskabideen berri emateko.

11. Oinarria. - Ordainketa

Diru-laguntza ordaindu baino lehen, erakunde onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebeharrorietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza

organismos internacionales, excepto con las que pudieran haberse obtenido de cualquier otro Departamento Foral de la Diputación Foral de Bizkaia.

5. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y en todo caso la obtención concurrente de subvenciones y ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o internacionales, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, dado que el importe de las subvenciones reguladas en el presente decreto foral, en ningún caso, podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por la entidad beneficiaria.

6. Anualmente el Departamento de Hacienda y Finanzas publicará, mediante anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, la relación de solicitudes presentadas y resueltas a los efectos de esta convocatoria pública.

Base 11.- Pago

Previo al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social,

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que alguna beneficiaria incumple cualquiera de las obligaciones señaladas, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice dicha





dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida.

12. Oinarria. - Betebeharrak

1.- Foru-dekretu honen bitartez araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

- Udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren berri ematea Bizkaiko Foru Aldundiari.
- Eskatzen zaienean laguntza ematea Ogasun eta Finantza Sailari, dekretu honen helburua betetzeko edozein informazio mota aurkezteko.
- Kontratatzen den kanpo-aholkularitzako entitatean taldea osatzen duten pertsonen zerrenda, sexuaren arabera bereizita
- Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jardueren menpe jartzea.

Base 12.- Obligaciones

1.- Las entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente Decreto Foral se comprometen a:

- Comunicar a la Diputación Foral de Bizkaia la obtención de otra u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de otra administración o ente público municipal, autonómico, estatal o internacional.
- Colaborar con el Departamento de Hacienda y Finanzas en aquellos supuestos en los que le sea requerido, con el fin de aportar cualquier tipo de información relacionada con la finalidad del presente Decreto.
- Facilitar una relación del número de personas desagregadas por sexo que componen el equipo de la entidad de consultoría externa que se contrate.
- Someterse a cuantas actuaciones de comprobación efectúen el Departamento de Hacienda y Finanzas, así como el Tribunal Vasco de Cuentas.





- 5/2005 Forua Arauen 13 eta 17. artikuluen eta 34/2010 Foru Dekretuen 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

- Cumplir con las demás obligaciones previstas en los artículos 13 y 17 NF 5/2005 y en los artículos 54 y siguientes del DF 34/2010.

13. Oinarria. - Itzultzea.

1.- Zenbait kasutan itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak. Hain zuzen ere, hala egin beharko da baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrian edo 5/2005 Foru Arauen 33. artikuluan edo 2010 Foru Dekretuen bidez onetsitako Dirulaguntzen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk.

2.- Dirulaguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasotzen bada, laguntza itzuli egin beharko da.

Base 13.- Reintegro.

1.- Procederá al reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes, cuando se incumplan alguna o algunas de las obligaciones establecidas en la base anterior o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 NF 5/2005, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por DF 34/2010.

2.- El exceso de financiación con relación al coste de la actividad subvencionada también constituirá motivo de reintegro.

14. Oinarria.-Aurrekontuko partida

a) Hogeita mila (20.000,00) euro udalei, udal-erakunde autonomiei eta mankomunitatei diru-laguntzak emateko aurrekontu-partida honen kargura ordainduko da: 0504 G/912104/43299, 2018/0015 proiektua.

b) Hogeita mila (20.000,00) euro udal-entresa publikoei eta Bizkaiko "Behargintzak" Enplegurako Laguntzarako Zentroei diru-laguntzak emateko aurrekontu-partida honen kargura ordainduko da: 0504 G/912104/44300, 2018/0015 proiektua.

Base 14. Partida presupuestaria

a) Para la concesión de subvenciones a ayuntamientos, organismos autónomos municipales y mancomunidades, veinte mil euros (20.000,00 €) a imputar con cargo a la partida 0504 G/912104/43299, proyecto 2018/0015.

b) Para la concesión de subvenciones a las empresas públicas municipales y a los Centros de Apoyo al Empleo "Behargintzak" de Bizkaia, veinte mil euros (20.000,00 €) a imputar con cargo a la partida 0504 G/912104/44300, proyecto 2018/0015.





c) Hogeia mila (20.000,00) euro bigarren oinarrian jasotako gainerako erakunde onuradunei diru-laguntzak emateko aurrekontu-partida honen kargura ordainduko da: 0504 G/912104/45100, 2018/0015 proiektua.

Dekretu honetan aipatzen diren laguntzak emateko baldintza hau bete behar da: ezinbestekoa izango da dagokion ekitaldian haren ondorioz sortutako betebeharrak finantzatu ahal izateko behar den kreditu nahikoa egotea.

2. Onartzen diren eskaeren arabera, eta balizko erakunde onuradunen izaera desberdina dela eta, aipatutako baliabide ekonomikoak partida desberdinen artean egokitu ahal izango dira.

3. Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43.4 eta 5. artikuluen arabera, eta kontuan hartuta emakidaraubidea lehia askekoa dela, organo emaileak, dekretua amaitzean, aurrekontu-kredituen behin betiko banaketa argitaratuko du, Ogasun eta Finantzetako foru diputatuaren foru agindu bidez edo Finantza, Aurrekontu eta Ondareko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez. Publizitate horrek ez du esan nahi eskabide berriak aurkezteko epea irekiko denik, ez eta ebazteko epe berria hasiko denik ere.

c) Para el resto de entidades beneficiarias recogidas en la Base 2, veinte mil euros (20.000,00 €) a imputar con cargo a la partida 0504 G/912104/45100, proyecto 2018/0015.

La concesión de las ayudas a las que se refiere el presente decreto queda sometida a la condición suspensiva de la existencia de crédito adecuado y suficiente para financiar las obligaciones derivadas del mismo en el ejercicio correspondiente.

2. En función de las solicitudes que resulten aprobadas, y dada la distinta naturaleza de las posibles Entidades beneficiarias, los citados recursos económicos podrán readecuarse entre las distintas partidas.

3. Dicha distribución tendrá carácter estimativo, y conforme al artículo 43.4 y 5 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, y teniendo en cuenta que el régimen de concesión es de libre concurrencia, el órgano concedente publicará a la finalización del Decreto la distribución definitiva de los créditos presupuestarios mediante Orden Foral de la diputada de Hacienda y Finanzas o resolución del director general de Finanzas, Presupuestos y Patrimonio, sin que tal publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver.





15. Oinarria. - Zehapen-araubidea

1.- Zehapen-espedita ireki daiteke baldin eta onuradunak 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluko I. kapituluari jasotako egite edo ez-egiteren bat egiten badu.

2.- Diru-zehapenak eta beste era batekoak ezarri ziotuko dira arau-haustek.

3.- Zehapena ezarri edo ez, onuradunek itzuli egin beharko dute dirulaguntza kontzeptuan bidegabe lortutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

16. Oinarria. - Araubide juridikoa.

Dekretu honetan eta dirulaguntzak emateko foru-aginduetan ezarritakoaren arabera arautuko dira dekretu honetan ezarritako dirulaguntzak. Dekretu honetan aurreikusi gabekoari dagokionez, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua eta Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretua aplikatuko dira. Subsidiarioki, honako hauek: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, APAPEL; 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta haren izaeragatik aplikagarria izan daitekeen beste edozein arau-xedapen.

Ogasun eta Finantzen foru-diputatua / La diputada foral de Hacienda y Finanzas. ITXASO BERROJALBIZ ZABALA

Ahaldun Nagusia / La Diputada General. ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA

Base 15.- Régimen sancionador

1.- La comisión por la beneficiaria de cualquiera de las acciones u omisiones contenidas por el capítulo I del título IV de la NF 5/2005 podrá dar lugar a la apertura de procedimiento sancionador.

2.- Las infracciones se sancionarán mediante la imposición de sanciones pecuniarias y de otro tipo.

3.- La imposición de sanción será independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de subvención.

Base 16.- Régimen Jurídico.

Las subvenciones establecidas en el presente decreto se regirán por lo dispuesto en el mismo y en las Órdenes Forales de concesión. En lo no previsto en el presente decreto, será de aplicación la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones. Subsidiariamente la Ley 39/2015, de 1 de octubre, LPACAP, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera ser de aplicación.

